

ANEXO BONIFICACIÓN COOPERATIVISTAS PGP- INTERES VARIABLE

INTERESEN HOBARIA

Mailegua egin eta hilabete gehi, dagokionean, epealdi irregularra igaro ondoren hasiko da aplikatzen interes-tasaren hobaria.

Epe hori igaro ondoren, 6 hilean behin edo interes-tasa aplikagarria berrikusi behar denean - berrikuspena epe laburragoan egiten bada-, arau hauek hartuko dira kontuan interes-tasaren hobaria aplikatzeko:

1.- Dagokionean hobaria aplikatu ahal izateko, alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK ordainduta izan beharko ditu maileguaren ondoriozko betebeharrak guztiak, eta LABORAL KUTXAREKIN ez du mugaeguneratutako zorrik izango, LABORAL KUTXAK eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEKO edozein pertsonak esku hartzen duten beste eragiketa batzuentzat.

2.- Aplikatu beharreko hobaria zehazte aldera, hauxe izango da alderdi MAILEGU-HARTZAILEAK kontratatutako produktuak berrikusteko data (aurrerantzean, «**Hobariak betetzen direla berrikusteko data**»): **maileguaren formalizazio-datatik hilabetera, gehi epealdi irregularra, dagokionean. Data horretatik aurrera, 6 hilean behin berrikusiko da.**

3.- Hobaria, dagokionean, EURIBOR erreferentzia- indizeari gehitu behar zaion diferentziala txikitzeko erabiliko da, honela hain zuzen:

a) Adierazitako diferentziala portzentajezko puntu murriztuko da, baldin eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEKO pertsona batek behinik behin nomina edo pentsio bidezko diru-sarreraren bat badu LABORAL KUTXAN, «**Hobariak betetzen direla berrikusteko dataren**» aurreko 3 irakurketetako 2tan, gutxienez. Honela jokatuko da, zehazki:

- Hileko irakurketak. Hilean behin, bezero bakoitzaren sarreraren irakurketa egingo da. Aurreko hilaren 15aren eta uneko hilaren 14ra bitartean erregistratutako eragiketak sartuko dira irakurketan.

- Nominaren edo pentsioaren kontzeptupean jasotako sarrerak baino ez dira kontuan hartuko, eta honako hauen bidez etorri beharko dira: Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionalaren (SNCEren) bidez, Gizarte Segurantzaren bidez, eskumena duen erakunde ofizial baten bidez edo zuzenean nomina ordaintzen duen enpresaren bidez.

- Nominaren edo pentsioaren zenbatekoak lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa izan behar du gutxienez.

Era berean, alderdi MAILEGU-HARTZAILEKO pertsonetako bat behinik behin norberaren konturako langilea edo autonomia denean hobari hori aplikatu ahal izateko, onartu egingo da langile autonomoen edo nekazaritzakoen erregimen berezietan dagokien Gizarte Segurantzako kuota (langile autonomoek Gizarte Segurantzara edo, dagokionean, aurreikuspen-mutualitatara bideratzen duten kotizazioaren ordainagiria) LABORAL KUTXAN helbideratuta izatea, interes-tasaren hobaria zehaztea dagokion hilaren aurreko 3 hiletan.

Berariaz kanpo geratuko dira eskudirutan egindako sarrerak, baita transferentziak ere, baldin eta horiek maileguaren esku-hartzaileetako batek agindu baditu.

MAILEGU-HARTZAILE batek bere nomina zuzenean bere enpresaren aldetik jasotzen ez badu edo autonomoen ordainagiria ordaintzeko betebeharririk ez badu gaixotasun edo istripuagatik laneko bajaran dagoelako, egoera hori modu frogagarrian egiaztatuko beharko du LABORAL KUTXAN,

«**Hobariak betetzen direla berrikusteko data**» baino gutxienez 10 egun lehenago, hobari hori aplikatu ahal izateko.

b) Adierazitako diferentziala portzentajezko puntu murriztuko da, baldin eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEko pertsona batek behinik behin 180 €-ko ekarpen garbiak egin baditu gutxienez, «**Hobariak betetzen direla berrikusteko dataren**» aurreko 6 hilabeteetan, hark LABORAL KUTXAn kontratatuta duen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko plan batean edo pentsio-plan batean.

c) Adierazitako diferentziala portzentajezko puntu murriztuko da, baldin eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEko pertsona bat behinik behin LABORAL KUTXaren kreditu-txartel baten titularra bada eta erosketetan edo kutxazainetan aktiboa bada, hau da, «**Hobariak betetzen direla berrikusteko dataren**» aurreko hilean erosketeta edo diru-ateratzeren bat egin badu eta kuota ordainduta badu.

d) Adierazitako diferentziala portzentajezko puntu murriztuko da, baldin eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEko pertsona bat behinik behin «**Hobariak betetzen direla berrikusteko datan**» borondatezko gizarte-aurreikuspeneko plan baten edo pentsio-plan baten titularra bada eta horretan 600 euroko edo gehiagoko saldoa badu.

e) Diferentzial hori portzentajezko puntu murriztuko da, baldin eta alderdi MAILEGU-HARTZAILEko pertsona batek behinik behin baldintza hauek betetzen baditu:

- LABORAL KUTXaren bazkide den kooperatiba batean lan egitea eta bazkide kooperatibista izatea, edo
- Seguros Lagun Aro SAn, Seguros Lagun Aro Vida SAn, Seguros Lagun Aro 2003 AIEn edo Caja Laboral Bancasegurosen (OBSVn) lan egitea eta kontratu mugagabeko langilea izatea; gutxienez 2 hilabeteko antzinatasuna izatea eta MAILEGU-HARTZAILE horrek baimena ematea bere datu pertsonalak bere enpresaren, Lagun Aro EPSVren (baldin eta enpresa aurreikuspen-erakunde horretan kotizatzen duen kooperatiba bada) eta LABORAL KUTXaren artean lagatzeko.

4.- Murrizketok metagarriak izango dira, horietako bakoitzaren baldintzak betez gero. Beraz, murrizketa portzentajezko puntukoa izango da gehienez.

Mailegua formalizatzek ez du esan nahi LABORAL KUTXAk edo alderdi MAILEGU-HARTZAILEAk goian azaldutako produktu nahiz zerbitzu batzuk edo guztiak kontratatu behar dituztenik; interesak nola hobaritu zehazteko azaltzen dira soilik.

Hobariez baliatzeko eskubidea ematen duten baldintzak bete ote diren berrikusteko aldi bakoitzean aplikatzeko interes-tasa arruntak (dagokionean hobariak aplikatu ostean) finkoak izango dira hurrengo epealdi osoan, hobariez baliatzeko eskubidea ematen duten baldintzak bete diren berriz berrikusten den egunera arte.

Hurrengo berrikuspen-datan, hitzartutako hobariren batez edo guztiez baliatzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen diren edo ez aztertuko da (betiere 30 egun lehenago).

Kuoten zenbatekoa kalkulatzeko, hasieran aplikatzekoa zen interes-tasa hartu da kontuan, eta, beraz, zenbateko horiek aldaketak izan ditzakete, intereserako hitzartu diren aldaketen ondorioz. Kasu horretan, baina, ez da kontratua berritu beharko.